



## **Legorretako udalbatzaren adierazpena LGBTI Komunitatearen Nazioarteko Egunean**

**2022ko ekainaren 28a**

Aurreko urteetan egin bezala, Legorretako Udalak aurten ere aldarrikatu nahi du gure herriko gizarteak afektibotasunari, sexuari eta generoari dagokionez aniztasunean bizitzeko daukan eskubidea.

Historian zehar, gure kulturaren ez dira aintzakotzat hartu arau heterosexualetik kanpo dauden orientazio afektibo, sexual eta genero identitate desberdinak dituzten pertsonak, eta estatuko botere indarrek eta gizartearen gehiengoak diskriminatu egin dituzte.

53 urte dira New Yorken Stonewall-eko istiluak gertatu zirela. 1969ko ekainaren 28 hartan, manifestazio espontaneo eta bortitzak egin zituzten, New Yorkeko Greenwich Village auzoko Stonewall Inn tabernan Poliziak egindako sarekadaren kontra. Estatu Batuetako historian, istilu horiek izan ziren lehen aldian non LGBTI komunitateak matxinada egin zuen jazartzen zieten sistemaren aurka. Horregatik, LGBTI kolektiboaren eskubideen aldeko mugimendu garaikidearen hazi gisa hartzen dira mundu osoan.

LGTBI komunitatea orain hamarkada batzuk baino askeago bizi da egun: aktibismotik egindako lanari esker, amaiera eman zaie legeen alorrean gertatutako diskriminazioei, eta jardunbidean ia erabateko berdintasuna lortu da. Hala ere, errealitate soziala urruti dago berdintasun horretatik. Oraindik ere nagusi dira ulertezintasun, aurreiritzi, diskriminazio, lesbofobia, homofobia, transfobia, intersexofobia eta bifobia zantzuak dituzten testuinguruak.

Legorretako herria ez da errealitate horretatik kanpo gelditzen: *Bizigarri* diagnostikoan argi azaltzen da gure herritarrek zer-nolako zapalkuntzak jasan dituzten, eta, egoera horri buelta emateko ardura hartzen ez dugun bitartean, halakoak jasaten jarraituko dute.

Udalak konpromiso argia hartu du LGBTI pertsonak aintzakotzat hartuko dituzten udal politika publiko espezifikoak eta zeharkakoak martxan jartzeko, LGBTI komunitatea osatzen dutenen eskubideak bermatuko diren herri bat nahi dugulako.

Helburu horretara iristeko, ezinbestekoa izango da denon parte hartzea, herritar guztiena baita elkarbizitza eta aniztasuna sustatzeko ardura. Horregatik, LGBTI komunitatearentzat hain garrantzitsua den egun honetan, Legorretako Udalak dei egiten die herritarrei etxeko balkoietan gorri-laranja-hori-berde-urdin-more koloredun banderak jartzera. Txikiak izanik ere keinu guztiak baitira garrantzitsuak.